



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2022KO MARTXOAREN 31N BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko martxoaren 31ean, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: M Mar Ansorena, Santos Etxegia, Julen Beunza, Xabier Azpiroz eta Ricardo Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Otsaileko 24ko ohiko batzarreko akta emailaz helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

2.- Alkate ebazpenak

-2022/10 alkate ebazpena baimena emanaz Basandereok Elkarteari, Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko, martxoaren 12 eta 13an goizeko 11etatik eguerdiko 14etara erakusketa bat jartzeko.

- 2022/11 alkate ebazpena baimena emanaz Basaburua Imotz Korrika batzordeari, Apeztegi berriko lehen solairuko areto nagusia erabiltzeko, otsailaren 24an arratsaldeko 18etatik aurrera.

-2022/12 alkate ebazpena baimena emanaz Aralar Musika Eskolari, Apeztegi berriko ganbaran dagoen areto nagusia erabiltzeko, martxoaren 28an arratsaldeko 14:30etatik aurrera musika emanaldia egiteko.

- 2022/13 alkate ebazpena onartuz, Berueteko 12, poligonoko 508. Lursailean dagoen abelzaintza ustiategiaren titularitate aldatzea, udal honek Francisco Javier Recondo Elizalderi onartutakoa, orain bere alaba den Amaia Recondo Azpilicueta 772418050A NAN zenbakidunaren izenera aldatzeko, Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko Martxoaren 22ko 4/2005 foru legearen 49.4 artikuluari jarraiki.

-2022/14 alkate ebazpena onartuz Itsasoko 4. Poligonoko 478. Eta 482. Lursailtan dagoen 21 behi eta 20 txekorretarako abere ustiapenaren iharduera ez kaltegarriko baimenaren titularitatea aldatzea, Angus Sorozelai S.L B71405948 IFK zenbakidunaren izenera pasatuz, ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko Martxoaren 22ko 4/2005 foru legearen 49.4 artikuluari jarraiki

-2022/15 alkate ebazpena onartuz behin behineko M^a Celia Martin Urdangarinek egindako gainbalioaren zergari lotuta ez egoteko eskaera, Aizarotzko Igoabide kaleko 4, 1 eskubi helbidean dagoen etxebizitzaren salmentagatik, ikusita, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera salerosketak ez duela gainbalioa sortu.

- 2022/16 alkate ebazpena onartuz, Apeztegi berriko dendarako, 0021/2022 zenbakidun aurrekontuan agertzen den IA-f 45.30 platerak garbitzeko makinaren erosketa, hanen gastua 1.625,20 eurokoa izanik, BEZ kanpo.

-2022/17 alkate ebazpena onartuz, Francisco Javier Recondo Elizaldek, 2022ko otsailaren 25ean egindako eskaera eta hortaz 2022/13 alkate ebazpena indargabetzea.

- 2022/18 alkate ebazpena, onartuz Berueteko 12. poligonoko 566. Lursailean dagoen behi eta ardi ustiatetik jarraian baimenaren titulartasuna aldatzeko eskaera, udal honek Ursula Tellechea Echarriri onartutakoa, orain bere alaba den Irene Goñi Tellechea 29141934Z NAN zenbakidunaren izenera aldatzeko, Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko Martxoaren 22ko 4/2005 foru legearen 49.4 artikuluari jarraiki.

- 2022/19 alkate ebazpena Lehen erabilera emanaz Vicente Iribarren Garrori, Udabeko 1. Poligonoko 17. Lursailean egikaritutako bi etxebizitzentzat.

Etxe hauen helbide postala ondorengoa izanen da: Virgen del Rosario 16.-1. eta 2. 31869 Udabe.N

-2022/20 alkate ebazpena onartuz Kide lan aholkularitzak aurkeztutako 116. Aurrekontua 960 eurokoa BEZ kanpo.

- 2022/21 alkate ebazpena baimena emanaz Patxi Miranda Fernandezi, Aizarotzko herrikoetxe gela haundia erabiltzeko, Martxoaren 20an, arratsaldeko 17:30etatik aurrera, Nafarroa XII ekimenaren barruan, Foru Hobekuntzaren 40. Urtearen inguruko dokumentala emititzeko.

- 2022/22 alkate ebazpena baimena emanaz Aizarotzko Auzokide Elkarteari, Aizarotzko herrikoetxeko gela haundia erabiltzeko, Martxoaren 12an, egunean zehar, herriko ihauteriak ospatzeko .

- 2022/23 alkate ebazpena ez onartuz John Bassonek egindako eskaera Aizarotzko frontoian zirkoa jartzeko, ez duelako betetzen udalak onartua duen Udal eraikinetako gelen erabilera arautzen duen ordenantzaren 4. artikulua. Eskaera Martxoaren 15ean egin zen eta ez dago denborarik espazio publikoaren erabilera desberdinak planifikatu eta koordinatzeko. Gainera ere adierazten dizut, aipatutako ordenantzaren 16. Artikuluaen arabera, erabilera onuradura izanik, udal ekipamenduak erabiltzeagatik tasa bat kobratzen dela, , erabilera denboraren arabera.

- 2022/24 alkate ebazpena baimena emanaz 2004ko martxoaren 22an Elcano Guerenciain Juan Tomas y Sarasibar Nazabal IFK G 31800998 IFK zenbakidun elkarteari emandako jarduera eta irekiera baimenen titularitatea aldatzeko, Gartzarongo 6. poligonoko 185 lursailean dagoen abere ustiategirako , 18195532W NAN zenbakia duen Anunciacion Sarasibar Nazabalen alde, eskatzaileak hala adierazita, 2005/4 Ingurumena Babesteko Foru Legearen 49.4 artikulua jarraituz.

- 2022/25 alkate ebazpena baimena emanaz Baimena ematea Cristina Arozena Sarasolari, Aizarotzko herrikoetxeko gela haundia erabiltzeko, apirilaren 29an, maiatzaren 27an eta ekainaren 17an, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, ahots ikastaro bat egiteko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

3.- Gartzarongo 6. Poligonoko 6. Lursailerako plan berezia. Hasierako onespena.

Alkateak azaltzen du, hirigintzan aztertu dela gai hau, aipatutako lursailaren jabeak etxebizitza bat egiteko asmoz, zehazten ditu aurkeztutako hirigintza dokumentuarekin, lursailaren gehienezko lerroakadurak, finkatzen ditu ere aparkatzeko plazak... gainera ere udalak eskatu bezala kalea zabaltzeko 31,68 m²ko zesioa ere egiten du. Udalak hau eskatu dionez ez zaio kontutan hartuko zesio honek lursailean izango duen eraikigarritasun murrizketak.

2022/35 Lurralde Antolamendu Foru Legea garatzen duen 2017/1 Foru Dekretuaren 72. Artikuluaen arabera, bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Hasiera batez onartzea Gartzarongo 6. Poligonoko 6. Lursailerako aurkeztuta plan berezia, bertan etxebizitza bat egiteko lerroakadurak eta zesioak zehazten dituen.**

- **Erabaki hau sustatzaileari jakinarazi, adieraziz 22/0057 udal arkitektoaren txostenaren arabera, behin betiko onespenerako dokumentu bateratu bat aurkeztu behar duela txostenean zehazten diren dokumentuak eta xehetasunak justifikatzen dituen.**

- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute bildutakoek, hilabeteko epean argitaratzen denetik, jende aurreko epean egon dadin, 2017/1 foru dekretuaren 72. Artikulua jarraituz eta Nafarroako Aldizkari batean argitaratzea ere.

4.- Igoan Amikol Eraikuntza enpresak sustatutako urbanizazioko kalea jasotzea.

Alkateak azaltzen du katastroan gaizki dago kalearen jabetasuna isladatua... oraindik ere urbanizazioa sustatu zuen eraikuntza enpresaren izenean dago, gainera ez da kale bezala agertzen lursail pribatua baizik, Igoako 216. lursaila. Urbanizazio honen proiektua 1996. urtekoa da, oraingo izan balitz legeak hala agintzen duelako kaleren jasotze akta sinatu beharko lukete sustatzaileek eta udalak eta dokumentu horrekin katastroa egokitu litzateke.

Aipatutako urtean ez zen horrela egiten baina okerra zuzentzera bidean, udalak onartu behar du kalea jasotzen duela eta hortaz katastroko aldaketa sustatzen duela ere.

Hau kontutan hartuz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute.

- Igoako UA 1 unitatea sustatu zuen Amikol Eraikuntza enpresaren izenean dagoen kalea udalak jasotzen duela eta hortaz jabetasun publikoa dela ontzat ematen da eta katastroan horrela agertzeko erabakia ere hartzen da. Hortaz Igoako 9. Poligonoko 216. Lursaila Amikol Eraikuntza enpresaren izenean egon beharrean kale publikoa dela izendatzeko erabakia hartzen dute.

- Erabaki hau katastroaren mantenimendua egiten duen Estudio 5 enpresari jakinarazi, aldaketa egiteko.

Ricardo Arangoa bertaratzen da bilerara.

Gai ordenetik kanpo badaude bi gai alkateak urgentziaz tratatu behar direla adierazten du eta bildutakoek aho batez onartzen dute gai ordenean sartzea.

- Apeztegi berriko aterpea katastroan alta emateko erabakia.

Alkateak azaltzen du Apeztegi berriko aterpea altan emateko mantenimendu enpresak ikusi duela katastroaren arabera aterpea ez dagoela lursail pribatuan kalean baizik. Baina Apeztegi berriko eraikina udalak erositako eskriturak aztertu ondoren ondorioa da Basaburuko udalak 1996. Urtean 1493 m²ko lursaila erosi ziela Vildarraz Villanueva anai arrebei, eta bertan 258 m²ko azalera planta bakoitzeko duen eraikina dago, hortaz eraikina inguratzen zuen azalera udalarena da. Babes ofizialeko etxebizitzak sustatu zirenean aparkalekurako utzi ziren aipatutako metro horiek eta kale bezala islatu ziren katastroan. Orain oker hori zuzentzea dagokio udalari egikaritutako aterpea lursail pribatuan dagoela adieraziz eskrituretan hala egiaztatu delako. Hortaz bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez

- Apeztegiberriko dendari lotuta udalak sustatutako aterpearen azalera udalaren jabetasuna dela, 1996. Urtean sinatutako erosketa eskrituren arabera. Hautan agertzen da udalak 1493 m²ko azalera zuen lursaila erasi zuela eta bertan 258 m²ko eraikina zegoela.
- Basaburuko alkatea den Esther Lacasta Perez Ilzarbe ahalmentzea hau isladatzen duen katastroko aldaketa sustatzen duen plano sinatzea, Katastroko mantenimendua egiten duen Estudio 5 enpresak egindakoa eta hortaz ontzat ematea aipatutako plano.

Egozkue auzoan argi indarraren linearen mantenimendua.

Udalak 2021ko ekainaren 10ean onartu zuen Egozkue parajeen dagoen Idiagako bordara doan argi indarraren azpiegituraren mantenimendua bera gain hartzea, azpiegitura hori nahiz eta jabeak egin izan, udalak probesten duelako irratia hornitzen duen antenaren argi indarra hartzeko.

Antza denez ez da Idiagako bordako argi indar linea baizik eta Txibarneko bordako argi indarraren azpiegitura irratiko antenarako argi indarra hartzen deneko azpiegitura, Idiagako bordan ez duelako argi indarririk. Hala adierazi du bi bordetako jabeak telefonoz eta eskatzen duena da hartutako akordio zuzentzea. Gaia eztabaidatu ondoren okerra zuzentzera bidean bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

-Udalak bere gain hartzea Berueteko Egozkueko parajeen dagoen Txibarneko bordara doan argi indarraren azpiegituraren mantenimendua eta erabaki hau Txibarneko bordako jabeari jakinarazi.

Ttikienako haur eskolako 2022-2023 ikasturteko egutegia.

Alkateak aurkezten du haur eskolako hurrengo ikasturteko egutegia, ekainaren 1a baino lehen ontzat eman eta Hezkuntzako Departamentura bidali behar da.

Ikasturtean 208 egun irekita egongo da haur eskola horietatik 204 hurrekin eta 4 umerik gabe antolaketa egunak dira langileentzat. Ikasturtea 2023ko uztailaren 5an bukatuko da eta hasi 2022ko abuztuaren 22an baina haurrak 24an hasiko dira. Urriaren 31a udalak tokiko pesta eguna finkatu zuen eta hortaz egin horretan haur eskola itxita egongo da.

Azalpen hauek kontutan hartuta bildutakoek aho batez onartzen dute Ttikiena Haur Eskolako 2022-2023 ikasturteko egutegia

Euskal Herriko mapa

Alkateak azaltzen du Seaskako Etxepare lizeoak ikastola elkarterako dirua biltzeko Euskal Herriko mapa bat editatu du eta erosketa eta bidalketa proposamenak bideratu ditu udaletara. Bildutakoek ikusten dute bidalitako dokumentazioa eta 3 ale erostea adoste dute, eskola, haur eskola eta udalean jartzeko. Mapa bakoitzaren kostea 99 eurokoa da eta gastu hau onartzeko erabakia ere hartzen dute bildutakoek.

5.- Mozioak.

Ukraniako egoerarekin lotuta Nafarroako Parlamentuan onartutako adierazpen instituzionala irakurtzen du alkateak.

“Errusiako Gobernuak Ukraina eraso eta inbaditzeko hartu duen erabakiak iragan ostegunetik dozenaka hildako eta ehunka zauritu eragin ditu, eta bonbetatik ihesi lekualdatzen ari den jende asko ere bai.

Errusiako Gobernuak burutu duen eraso inongo justifikaziorik ez duen oldarra da, ikusi gabeko larritasuna duena, eta nazioarteko zuzenbidearen urraketa nabarmena ere bada, segurtasun globala eta egonkortasun arriskuan jartzen dituena.

Hori guztia dela eta, honako adierazpen instituzional hau onetsi du Nafarroako Parlamentuak

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

1.- Nafarroako Parlamentuak Errusiaren eraso militarra salatzen du eta eskatzen du berehala buka dadila eta indar militarrek Ukrainatik atera daitezela.

2.- Nafarroako Parlamentuak borrokak berehala buka daitezela exijitzen du, biktimen kopurua handitu aurretik, eta tropak itzul daitezela nazioarteak Errusiako Federazio gisa aitortutako lurraldera.

3.- Nafarroako Parlamentuak eragile guztiei dei egiten die Errusiak hasitako gatazka belikorako konponbideak bila ditzaten.

4.- Nafarroako Parlamentuak berresten du desadostasunak konpontzeko esparrua Nazio batuen gutuna dela, bakearen eta diplomazioaren bideak erabiliz.

5.- Nafarroako Parlamentuak Europako erakundeak premiatzen ditu arreta eman diezaieten Ukrainatik lekualdatu eta Europako beste herrialdeetan babesa bilatzen ari direnei.

6.- Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun erabatekoa adierazten die Ukrainiako Goernuari eta herriari eta, halaber, Errusian gerraren aurka manifestatzen ari direnei eta jazarpen polizial eta militarra pairatzen ari direnei.

7.- Nafarroako Parlamentuak elkarretaratzea baterako dei egiten du, Nafarroako Foru Komunitateko erakunde nagusiekin batera; 2022ko otsailaren 28an, astelehenarekin, 12:00etan egingen da, Iruñeko Sarasate pasealekuan, Ukrainiako egoera salatzeko eta adierazpen honetan onetsitako puntuak babesteko.”

Bildutakoek ez dute onartzen irakurritako mozioa arrazoi hauengatik:

- Nafarroako Parlamentuak onartutako adierazpenean gerraren ikuspegi lerrokatua agerian dago, gertatutakoaren ikuspegi partzialarekin, arazoa oso konplexua da eta ez da gaurkoa azkeneko hamarkadak sortutako arazoa da jada.
- Gerra egoera dauden herrialde guztiei atea ireki behar zaizkie egun, indarrean hainbat konfliktu daude.
- Estatu batuek egindako presioa ere salatzeko da.

Bestetik EH Bildutik Sahararen egoeraren inguruan ere mozioa bidali dute eta alkateak ondoren transkribatzen dena irakurtzen du:

Espainiako Gobernuak errotik aldatu du bere jarrera Mendebaldeko Saharako gatazkari dagokionez, Nazio Batuen ebazpenak eta Nazioarteko Zuzenbidea bera ere urratuz.

Komunikabide batzuen arabera, Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidentek gutun bat bidali dio Mohamed VI erregeari, Marokok 2007an Sahararako egin zuen autonomia-erregimenaren proposamena gatazka konpontzeko proposamenik serioena, errealistena eta sinesgarriena dela esanez. Jose Manuel Albares, Atzerri, Europar Batasuneko eta Lankidetzako ministroak berak informazio hori baieztatu du.

Abdulah Arabi, Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkariak adierazi duenez, Espainiako Gobernuak urteak daramatza Marokori etengabe atsegin ematen saiatzen, bere ustez deskolonizatzeko dagoen lurralde bateko potentzia administratzaile gisa ez dagokion anbigutasunarekin jokatu. Arabik berretsi du erreferenduma egin behar dela saharar herriak erabaki dezan.

Horregatik guztiagatik, **Basaburuko Udalak:**

1. Bere kezka adierazi nahi du Espainiako Gobernuak babesa ematen diolako Marokoko Erresumak Sahararen autonomiari buruz egindako proposamenari.

2. Espainiako Estatuak lotura historiko eta afektiboa duela Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan, eta, horregatik, Espainiako Gobernuari eskatzen dio Nazio Batuen Erakundeetan, EBn eta gainerako nazioarteko erakundeetan modu aktiboan lagundu eta jardun dezala gatazkaren konponbidearen alde, Nazioarteko Zuzenbidearen eta NBEren ebazpenen arabera beti ere. Ildo horretan, Gobernuari eskatzen dio babestu ditzala Staffan de Mistura NBeko ordezkari aldean arteko negoziazio-prozesu politikoari berriro ekiteko egindako ahaleginak eskatzen dio.

3. Ezinbestekoa dela konponbide politiko justu, iraunkor eta elkarrekiko onargarri batetara iristea, Nazio Batuen Gutunaren printzipio eta asmoen esparruan, Nazio Batuen ebazpenekin bat etorriz, alde guztien erantzukizuna eskatuz, ikuspegi aldean zuzen eta eraitzitailea duen konponbidea helburu.

4.- Mendebaldeko Sahararen auziari irtenbide politikoak ematea funtsezkoa dela

adierazten du, Magrebeko herrialdeen arteko eskualde-lankidetzarako eta eskualdearen egonkortasuna, segurtasuna eta oparotasuna bermatzeko.

Bildutakoek aho batez onartzen dute goian transkribatutako adierazpena.

9- Batzordeen informazioa.

Gizarte Zerbitzuetako Batzordea. M^o Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko eguneko ospakizunen artean afaria egin zen Aizarozko ostatuan eta Jaunsaratsen antzerkia. Bi ekialdiak arrakastatsuak izan ziren eta jende nahiko bildu zen.

Hezkuntza Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

Ttikiena haur eskolako 2022.-2023 ikasturteko aurrematrikula datuak biltzeko bilera egin da eta bertan ateratakoak hauek dira:

11 ume plaza erreserba egin dutenak.

5 ume berri sartuko dira abuztutik aurrera.

Beste bi ume gehiago aurreikusten dira ikasturtean zehar ere sartzea, hortaz Hezkuntza Departamentura bidalitako informazioan 18 haur aurreikusten direla jakinarazi da.

10- Informazio orokorra.

Ez dago.

11. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 19:50 ak direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.